

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Pirinioetako Lan Elkarteak 7,4 milioi euro eman dizkio Nafarroari garapenerako 17 proiektutan erabiltzeko

Espainiako eta Frantziako Pirinioen inguruko eskualdeen lurralde-lankidetzarako erakundea Iruñean elkartu zen atzo

Miércoles, 08 de febrero de 2012

Nafarroako hainbat organismo eta erakundek 7.474.954 euro jasoko dituzte guztira [Pirinioetako Lan Elkarteak \(CTP\)](#) kudeatzen dituen Europako funtsetatik, Pirinioen inguruko Espainiako eta Frantziako beste eskualde batzuekin elkarlanean arituz, 17 garapen-proiektu finantzatzeko laguntzeko.

[Nafarroa diru-laguntza jaso duten 17 proiektutatik bederatziren buru edo sustatzailea da](#), eta [mugaz gaindiko beste zortzi garapen-ekimenetan bazkide gisa parte hartzen du](#) Pirinioetako Lan Elkarteko beste eskualde batzuekin batera.

CTPk, atzo, Espainiako, Frantziako eta Andorrako Pirinioen inguruko eskualdeetan egingo diren [38 proiekturako eman zituen 30 milioi euroren](#) zenbatekotik 7,4 milioi euro dagozkio Nafarroari. Laguntzak [POCTEFA 2007-2013 laguntzen programaren](#) bigarren deialdia da. Deialdi horretara 91 hautagaitza aurkeztu ziren 81 milioi euroko finantzazioa eskatuz.

Horixe jakinarazi dio Gobernuari gaur goizean Juan Luis Sánchez de Muniáin kontseilari eta eledunak, Institutioekiko Harremanetarako Gobernuko arduraduna den aldetik, Jauregian egin duten ohiko bilkuran.

Nafarroak Pirinioetako Lan Elkartearen presidentetza duenez iragan urritik, deialdi honetako lankidetzarako proiektuen programaziorako bilera Nafarroako Artxibategian izan zen, Iruñean.

Nafarroak 11 milioi euro jaso zituen lehen deialdian

Gogorarazi behar da lehen deialdian (2009. urtean) gainerako laguntzak eman zirela (aurrekontuan guztira jasotako 168 milioi euro) [95 lankidetzarako proiekturako](#). Nafarroak, horietatik, 11 milioi euroko 23tan parte hartzen du.



Nafarroak 2,5 milioi euro jaso ditu Iruñeko harresiaren erakargarritasun turistikoa handitzeko

Bi deialdietan diru-laguntzak jaso dituzten proiektuek ekonomia eta enplegua, ikerketa, ingurumena, turismoa eta kultura, lurraldearen antolamendua eta abar bezalako alorretan jarduerak burutu dituzte.

Pirinioetako Lan Elkartearen helburu nagusia mendien bi aldeetan guneratu, iraunkorra eta lehiakorra sustatzea da, instituzio publiko, enpresa, erakunde pribatu eta elkarte zibilen arteko lankidetzari esker.